


# Piano, piano, pianissimo...

Jesus Guridiri omenaldia bere heriotzaren 50. Urteurrenean



**Bilboko Ganbera Musika Elkarte**

**Testuen egileak:** José María Herrero Burgoa, Vicente Rodríguez Moral, Juan Carlos Vivián  
Gómez, Belén Castelló Zamora

**Lanaren Copyright:** Bilboko Ganbara Musika Elkarte

**Euskarazko itzulpena:** Artez Euskara Zerbitzua

**Azaleko irudia:** Carlos Goitia



## Aurkibidea

<b>Aurkezpena</b> , José M <sup>a</sup> Herrero.....	4. orr.
<b>Sarrera</b> , por José M <sup>a</sup> Herrero.....	5. orr.
<b>Jesus Guridiren azalpen biografikoa</b> , Vicente Rodríguez.....	8. orr.
Guridiri buruzko <b>ohar biografikoak</b> , Carlos Vivián.....	11.orr.
<b>BGMEren historia</b> , Belén Castelló.....	13.orr.
<b>Eranskinak</b> .....	17. orr.

## **AURKEZPENA**

### **“ Piano, piano, pianisimo”**

“Halakoxea zen zure aita: *Un barco fenicio* bere obraren amaiera bezalakoa, piano, piano, pianisimo”. Hitz horiek esan zituen, kontzertu amaieran, Enrique García Asensio maisuak, obra hori zuzendu eta gero.

Halakoxea zara zu ere, Juli, “piano, piano, pianisssimo”, eta, horregatik, Bilboko Ganbera Koru eta Orkestrako lagunek JESUS GURIDI handiari apal-apalik prestatu diogun omenaldi hau eskaini nahi dizugu, eta aldi berean, zu zeu sortzaile izan zinen BGMEn izan duzun partaidetza eskertu.

Aurten, beraz, horrelaxe ospatu nahi dugu Guridi Maisuaren heriotzaren 50. urteurrena, Bilboko Ganbera Koru eta Orkestrako kide guztion ahaleginaz, omenaldi xume honek lekutxo bat egingo duelakoan GURIDITARREN bihotzean.

Agur esan nahi dizuet Bilboko Ganbera Koru eta Orkestrako kide guztien izenean, eta eskerrak eman Guridiren familia osoari, eta bereziki, zuri, Juli Guridi, adiskide eta lagun izan zaitugun horri.

Presidentea

José María Herrero

## SARRERA

### ZERGATIK ETA NOLA SORTU ZEN OMENALDI HAU

Iaz, lanbidez dokumentalista den gure idazkari Belen Castellók, BGMEren Zuzendaritza Batzordeari gogorarazi zion, 2011ko apirilaren 7an beteko dela Jesus Guridi hil zeneko 50. urteurrena; hori horrela, urtean zehar, Maisuaren omenez eta gorazarrez zerbait egitea proposatu zigun.

Batzordeak, orduan, proposamena baloratu eta nola burutu zitekeen aztertu zuen. Gure zuzendari Txaber Fernandezek oniritzia eman ostean, bera izango baitzen proiektuaren gidari musikala, hauxe erabaki genuen: 2011ko oroipen-data horretatik aurrera, kontzertu guztiak Guridiren musikari eskaintzea.

Horixe izan zen ideia, eta hauxe da errealitatea. Urtebete talde-lanean jardun ostean, batez ere gure Zuzendariaren ahaleginari esker, ohore handia da guretzat Jesus Guridiren musikan oinarritutako kontzertua eskaintzea.

Jesus Guridiren omenez egin nahi dugun ekitaldi hau oso esanguratsua da gure lantaldearentzat (orkestra eta abesbatza), Guridi maisua oso presente baitugu gure eguneroko lanean; izan ere, taldekideetariko bat Juli da, Guridi maisuaren alaba gazteena.

Abesbatza eta Orkestra osatzen dugun taldekide guztioi ahalegin handia eskatu digu; izan ere, gure ohiko errepertorioko gaien zikloa aldatu behar izan dugu, proposaturikoa aurrera atera ahal izateko. Niretzat ere, presidente naizen aldetik, apustu sendoa izan da. Ez dut abesten, ez instrumenturik jotzen; hala ere, beste tekla batzuk jotzen saiatzen naiz, eta nire ahotsa entzunarazten, nire jarduera-eremuko foroetan txaloak jasotzea zailagoa bada ere. Publikoaren txalo-zaparrada izan ohi da taldeak egindako lan guztia konpentsatzen duena. Nire kasuan, ordea, taldekide guztien poztasun-aurpegiak ikustea da gehien asetzen nauena. Hori da, zalantzarik gabe, honen guztiaren emaitzarik aberats eta pozgarriena. Ondo egindako lanak ematen duen pozagatik eta entzuleek adierazten diguten estimuari esker, talde batua osatu dugu, giro onean diharduena, eta hori argi islatzen da gure ekitaldietan.

Kontzertu hauek entzuleen gustukoak izatea espero dugu; hori horrela, Bilboko Ganbera Korua eta Orkestra osatzen dugunon nahia da, alde batetik, entzuleengan oroitzapen gozoa uztea, eta bestetik, etorkizunean ere kontuan har gaitzatela.

Bilboko Ganbera Musika Elkartea garen aldetik, ahalik eta mailarik duinena eman nahi dugu gure inguruko ganbera musikaren testuinguruan. Pozik egoteko moduan gaude, profesionalez eta ikaslez osaturiko orkestra finko propioa dugulako. Hamahiru eta hirurogei urte bitarteko lagun-taldea osatzen dute, eta daukaten guztia ematen dute, musu truk, orkestrak egunez egun soinu hobea izan dezan. Abesbatzari dagokionez, kide gehienak kantu-ikasketak egindakoak dira, Maria Montes irakasle ospetsuaren eskutik. Horrek guztiak gaitasun musikal handia ematen digu.

Maila horri eusteko, gure zuzendari Txaber Fernandezek aginduetara jartzen gara arlo musikalean, eta Maria Montes irakaslearen aginduetara, kantuari dagokionez. Horrez gain, gure artean bada uneoro zorrotz errespetatu nahi dugun Urrezko Arau bat: taldekide guztiek, bai abesbatzakoek, bai orkestrakoek, musu truk jarduten dute, eta egindako lanagatik begirune eta tratu bera jasotzen dute den-denek, musikaria nahiz abeslaria izan, gizezkoa nahiz

emakumezkoa izan. Horri esker, talde-giro ezin hobea lortu dugu Elkarteko kide guztien artean.

Abentura hau aurrera eramateko, baina, ezin aipatu gabe utzi Batzordeko kideengandik jasotako laguntza; haien laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke proiektuak aurrera ateratzea. Horregatik, denei esker ona adierazteko, batzordekide guztiak aurkeztu nahi dizkizuet (gehienak abesbatzako edo orkestrako kide ere badira):

### **BGM Eren Zuzendaritza Batzordea**

Presidentea: José María Herrero  
Presidenteordea: Arantza López  
Idazkaria: María Belén Castelló  
Diruzaina: Juan Carlos Vivián  
Batzordekidea: María Montes  
Batzordekidea: Itziar Bizkarralegorra  
Batzordekidea: Elena Roldán  
Batzordekidea: Lourdes Suárez  
Batzordekidea: Reyes Sardón  
Batzordekidea: Ana González

Gainerako taldekide guztien izenak era aipatu nahi nituzke, horiek gabe ezinezkoa bailitzateke BGME.

### **Abesbatzako eta Orkestrako zuzendaria**

Txaber Fernández Martín

### **Bakarlariak**

María Montes, soprano bakarlaria eta kantu irakaslea.  
Elena Roldán, mezzosoprano bakarlaria.  
Arantza López, soprano bakarlaria.  
Javier Vallejo, tenor bakarlaria.  
Estibaliz Oiz, biolinista concertinoa

### **Abesbatzako kideak**

#### **Sopranoak**

Belén Castelló Zamora  
Ana González Ugalde  
Arantza López Santiago  
María Montes Callejo

#### **Mezzosopranoak eta kontraltoak**

Clara Isabel Barcia Pájaro  
Amaia Carrasco Alonso  
Beatriz Gómez Fernandini  
Julia Guridi Ispizua  
Carmen Lozón Marcaida  
Elena Roldán Pérez  
Angel Yala Lukau

## **Tenorrak**

Ignacio Abad Aldecoa  
Emilio de la Sierra Prada  
Javier Vallejo Matilla

## **Barítonoak eta baxuak**

Xabier Bilbao Hernández  
Juan Manuel Mazpule Ruíz  
Alberto Robles Simón  
Juan Carlos Vivián Gómez

## **Orkestrako kideak**

Estibaliz Ruiz Oiz (1. biolina, concertinoa)  
Juan Andrés Vazquez Antón (1. biolina)  
Itziar Bizkarralegorra Otazua (1. biolina)  
Garazi Martínez Gómez (1. biolina)  
Diego Parra Amigo (1. biolina)  
Esther Hernández Mejías (2. biolina)  
Edgardo Pérez Kondolf (2. biolina)  
Ricardo Pocino Martín (2. biolina)  
Josune Sarabia Zarraga (2. biolina)  
Jesús Fernández Ibáñez (Biola)  
Jorge Rodríguez San José (Biola)  
Iker Aburto González (Biolontxeloak)  
Garazi Elizundia López (Biolontxeloak)  
Ayla Losada Lorenzo de Reizabal (Biolontxeloak)  
Reyes Sardón Urtiaga (Biolontxeloak)  
Ana Izpizua Gutiérrez (Kontrabaxua)  
Iratxe Celaya Lopez (Oboea)  
Aitziber Domingo Bollada (Flauta)  
Iratxe Orokieta García (Flauta - Piccoloak)  
Lourdes Suárez Fernández (Flauta)  
Oscar Riguera Sánchez (Klarineta)

## **INFORMATIKA**

Daniel Sánchez Castelló. BGMEko Informatikaria eta Webmasterra

Mila esker denei, proiektu musikal hau gauzatzeko egin duten ekarpenagatik. Gure lana ez da 2011n amaituko; oraindik baditugu beste proposamen batzuk aurrera ateratzeko.

Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiet gure bazkide guztiei eta gure publikoari, haien laguntza ekonomikoa eta morala bultzada handia izan delako gure eginkizuna betetzeko orduan.

José María Herrero  
BGMEko presidentea

## JESUS GURIDIREN AZALPEN BIOGRAFIKOA, HAREN SUHI VICENTE RODRIGUEZEN ESKUTIK.

### “Gure aita jenio bat zen, baina ez zuen bere burua halakotzat hartzen”

Hitz horiekin hasten da SENIOR CLASS aldizkariak Julia Guridiri egin zion elkarrizketa. Esan liteke esaldi horretan laburbiltzen dela Jesus Guridiren nortasuna. **Jenio** bat zela bere obrak erakusten du, jenio batena baita haren lana. Hainbat sarik, tituluk, kondekoraziok eta karguk bermatzen dute Maisu honek izan duen meritua eta aitorpena.

“Gure aita jenio bat zen, baina **ez zuen bere burua halakotzat hartzen**” Zeukan izaera xalo, prestu eta apalak ospearen estandarretatik at uzten zuen gure Maisua. Musikan ere nabarmen ageri da haren apaltasuna. Gogoan dut Enrique García Asensiok Bilbon zuzendu zuen kontzertu bat. Beste obra batzuen artean, Jesús Guridiren *En un barco fenicio* interpretatu zuten. Ekitaldia amaitu zenean, Juli eta biok Zuzendaria ikustera joan ginen (kontserbatorioko lagunak ziren), eta esan zion: **“Halakoxea zen zuen aita, obra honen amaiera bezalakoa: piano, piano, pianissimo”**.

Gure Maisua “handinahiaren” antitesia zen, beraz. Ez zen argazkian agertu nahian ibiltzen diren horietakoa. Julik kontatu didanez, harrera-ekitaldi edo beste gizarte-ospakizunen batera joaten zenean, protagonismo guztien kontrakoa zen; ez zuen inondik ere nabarmena izan nahi. “Jakintsua ostean gelditzen da, ikusteko; ergela, berriz, aurrean, ikus dezaten.” Bere talentuaz jakitun zen, baina ez zuen inoiz bere burua halakotzat hartu.

Ziur nago izaera horrek ez ziola batera mesederik egin. Nire ustez, Maisuak bere obrak konposatzen zituenean, ez zuen bilatzen entzuleengan eragingo zuen efektua. Horregatik, pasarte efektistak alde batera utzi eta bere espiritu sortzaileari lotzen zitzaion.

Inoiz entzun diot Juliri esaten, zenbaitetan gogoia galduta, eta nolabait musika eta kultura giroaz desengainatuta, ibili zela euren aita. Izan ere, gure herria ez da oro har nabarmendu bere kultura eta heziketa musikalgatik. Nik neuk, adibidez, ustez goi-mailako hezkuntza jaso dut zentzu askotan. Eta, hala ere, ez lehen hezkuntzan, ez bigarrenetan, ez goi-mailakoan, ez didate inolako heziketa musikalik eman. Jesus Guridi beste herrialde batean jaio izan balitz, heziketa musikala pertsonaren garapenean inplizituki sartuta dagoen tokiren batean, haren ospeak pentsaezinezko aukerak izango lituzke.

Maisuaren espiritua bere gustu eta zaletasunetan ageri da argi eta garbi. Benetako grina zeukan naturarekiko. Bozkarioz betetzen zen lore bati begira edo txorien kantua entzuten. Félix Rodríguez de la Fuente bere idoloetako bat izango zen, ezagutu izan balu. *Sinfonía Pirenaica* izeneko obra Naturaren deskribapen sintesi bat da. Txundituta geratzen zen ortziari, astroei eta izarrei begira. Liluratu egiten zen, hain handi eta hain mugagabe ikusten baitzituen. Esango nuke Jainkoaren eskua sumatzen zuela Unibertsuaren handitasunean. Jesús Guridi fede handiko gizona zen, baina ez fede itsukoa. Badakit zalantza biziak zituela fede katolikoaren hainbat eta hainbat misterioaren inguruan.

Bazuen beste zaletasun bat: marrazki bizidunak. Walt Disneyren fan handia zen. Homenaje a Walt Disney piano eta orkestrarako konposizioa entzuten dugunean, sentitu eta bizi egiten dira zinemako egile horren hainbat film gogoangarri.

Jesus Guridirentzat etxeko kafea zen kaferik onena; bazkalostean galleta bat ardotan bustita, gozamenik handiena. Gauza xumeak. Maisuaren ustez, **“asebeterik sentitzeko**



**modurik onena beharrizanik ez sortzea da**". Nor ez da hunkitzen Así cantan los chicos entzutean, sentimendu sakon bat helarazten digun haur kanta xume hori.

Ironia zorrotza zuen Maisuak, baina xaloea eta espanturik gabea. Londresen gertatutako pasadizo bat kontatzen zuen berak: Londresera egindako bidaia batean, geltokitik irten eta taxi baten bila joan zen, eta taxilariari diotso bere ingeles eskasean:

To Margaret Street.

**Where to ?** (Nora?) - erantzun zion taxilariak.

To Margaret Street. - berriz ere Maisuak.

**Where to ?** (Nora?) - berriz ere taxilariak.

Jesus Guridik, helbidea idatzita daukan papera atera, eta taxilariari ematen dio. Eta honek erantzun:

**¡ Ah !, You mean ¡ Margaret Street !** (A, Margaret Street esan nahi duzu!)

**Ba, horixe esan dizut lehen ere!!!** - diotso Maisuak.

Alargundu eta sei seme-alabarekin (Juli 12 urte zituen ama hil zitzaionean) geratu zelarik, familia eta lagunak izan zituen Jesus Guridik bere bizitzako beste oinarrietako bat. Nire ustez, haren seme-alaben ontasuna (denekin izan ditut harremanak) Maisuak bere familiarekiko izan zuen ardura eta maitasunaren emaitza da. EL CASERIO obran bertan dena dago familiaren eta neba-arreben arteko maitasunaren inguruan: osaba, ilobak, etxea eta abar.

Lagun leialak eta musika ageri dira beti harremanen atzeko oihal gisa. María Josefa Valverde, Alfonso Mantecónen emaztea, organo ikasle izan zuen garaian, Jesus Guridik gaubilerak luzeak egiten zituen senar-emazte haiekin. Madrileko Ferraz kaleko etxe hartan organoa zeukaten eta arratsalde osoa ematen zuten musika jotzen, kafea hartzen eta musikari buruzko hizketaldi mamitsuetan, eta, ziur asko, inguruan zuten musika-giroari buruzko aipamen xeblebre eta pipertsuak eginez. "*Jesusito*" deitzen zion Alfonso Mantecón Maisuak. Behin, organo-grabazio bat egitea proposatu zioten Guridiri, eta honek María Josefa Valverderekin batera egitea eskaini zuen. Halakoxea zen haren aldartea eta adiskidetasuna ulertzeko modua.

Zuazo eta José Joaquín Sautu ere lagun eta "fan" handiak zituen. Zenbat kontzertu ez ote zituzten entzun elkarrekin! Entzutea daukat, behin, musika-entzunaldi batean, Maisuak zera esan ziela lagunei: "**Oso ondo dago obra hau; interesgarria dirudi**". "**Baina, Jesus, zeurea da-eta!**" erantzun omen zioten. Maisuaren deskuidiak! Hala ere, ez dut uste haren deskuiduek hitz horren esanahi arrunta zutenik; Jesus Guridik jenoaren bizitza bizi zuen. Esan ohi den bezala: "*beste onda batean zegoen*".

Zerbait izan behar zuen Maisuak Pablo Bilbao Arístegui bezalako pertsona bat, haren maila intelektual eta gizatasunekoa, Guridiren eta haren musikaren jarraitzaile fidel bihurtzeko, haren kritikiko handi eta ordainezin, haren laguntzaile leial bihurtzeko. Aipamen hau egiten dut, Pablo Jaunaren figura ezagututa, are handiagoa egiten delako jenoak zuen gizatasunaren neurria.

1958an ezagutu nuen nik Juli Guridi, Maisua hil baino hiru urte lehenago. Maisua bera urtebete beranduago-edo ezagutu nuen. Alabak aurkeztu zidan, ospakizunen baten harira. Bera hil baino urtebete lehenago, 60ko udan, Donostiara joan nintzen Juli bisitatzerako. Guriditarren familiak udaldi luzeak ematen zituen Gipuzkoako hiriburu ederrean. Izan ere, Maisuak txalet bat zuen Donostian. Etxe horrek *Villa Sasibil* zuen izena, *El Caserion* bezala. Hiru hilabete egoten ziren han (a zer oporraldia!), eta uste dut Jesus Guridik hantxe ondu zuela bere obraren zatirik handiena. Huraxe izan zen Maisuarekin izan nuen hartu-emanik luzeena. Juli bazkaltzera gonbidatu ninduen, eta bera eta Manuela leiala –bizitza osoa eman zuen

familia horren zerbitzuan eta etxeko bat zen- otordua prestatzen ari ziren bitartean, tarte luze bat egon nintzen Maisuarekin. Harridura eta pozaren arteko inpresioa atera nuen: ni, ingeniari izan nahi zuen mutil zintzoa, Jenio haren aurrean. Bada, horixe: esan dudana bezala, pertsona xume, adeitsu eta maitagarria, besterik gabe.

Haxe da Jesus Guridiri buruz egitera ausartu naizen ohar biografiko laburra. Jenio bat izan zen, musikarako jaio eta bizi izan zena; musika-lan izugarriak sortu zituen eta maila gorenera jaso zuen euskal musika herrikoia. Bizi izan moduan hil zen: osasun betean. Goiz batean, Madrileko etxean pianoa jotzen ari zela, bat-batean ondoezik sentitu eta bertan hil zen. Halaxe joan zen: ***piano, piano, pianissimo... Inor ohartu gabe joaten den artista bezala.***

Egilea: Vicente Rodríguez Moral

## GURIDI MAISUA

Jesus Luis Formerio Guridi Bidaola (1886 – IX – 25 // 1961 – IV – 7 ) Gasteizko Florida kaleko 36.ean jaio zen. Lorenzo Guridi gernikarra eta Trinidad Bidaola iruindarraren seme-alabetan seigarrena izan zen. Euskal jatorri peto-pettoa zuen, aiton-amonak Arrasate, Gasteiz, Segura eta Tafallakoak baitzituen, eta musikari-familia batean jaio zen (Nicolas Ledesma birraitona, organista eta konpositorea; amaren aldeko aiton-amonak: Luis, organista, eta Celestina, konpositorea eta piano-irakaslea; gurasoak: aita, biolinista, eta ama, pianista). Bi ezaugarri horiek bizi osorako markatuko zuten haren obra, eta, horrela, inoiz izan den euskal konpositorerik handienetakoa (edo handiena) bihurtuko zen.

Ume-umetatik, musikarekiko interes bizia erakutsi zuen. Geneetan zekarren. Eta oso azkar eta erraz ikasi zuen solfeoa etxean bertan, gurasoekin. Jesus ume txikia zela, Zaragozara aldatu zen familia. Eskolapioetan ikasi zuen, baina ez zen izan irakasleei gustatzen zaizkien ikasle horietakoa: oso erraz galtzen zuen arreta, bere musketan joanda. Handik Jesuitetara pasatu zen, eta hor “lotuago” eduki zuten: ahaleginak egin zituzten musikarekin arreta gal ez zezan, eta emaitza akademikoak eta heziketa hobetzea lortu zuten.

Luis eta Jose bere anaia nagusiak hain gazterik hil zirenean, familia osoa saminez beterik gelditu zen, eta gurasoek Madrilerara bizitzera joatea erabaki zuten. Madrilen bizitzen jarrita denbora gutxira, diruen zati eder bat galdu zuten finantza-iruzur batean, eta estutasun ekonomikoak pasatu zituzten; horregatik, gurasoek eragozpenak izan zituzten umeari behar bezalako heziketa musikala emateko. Orduan, Emilio García Soler alacantar baritonoak – zarzuela girokoa eta aitaren laguna- familiari egindako bisita haietako batean, Jesus ezagutu eta harrituta gelditu zen mutikoak horren gazterik zeukan talentuarekin. Motibazio gisa, berak kantatzeko moduko zerbait konposatzeko eskatu zion. Bere lehenengo erromantza. Handik lasterrera, Garcia Solerrek bere gain hartu zuen mutikoaren heziketa musikala eta Valentín Arín, Arrietaren ikaslea, kontratatu zion irakasle partikular gisa. Ezagutu zuenarekin batera ohartu zen Arín Jesusen talentuaz, eta mutikoari eskolak doan ematea erabaki zuen.

Urte batzuk beranduago, Bilbora itzuli eta Lope Alañaren biolin-eskolak hartu zituen eta José Sáinz Basabek harmonia irakatsi zion; horien bitartez, ezagutzera eman zuen bere burua 1901eko urtarrilaren 28an eman zuen bere lehenengo kontzertua Bilboko Sozietate Filarmonikoan, eta 1902an Hiriko Lore Jokoak irabazi zituen Txalupan ahots eta pianorako obrarekin. 1904an, Zubiria kondearen mezenasgoari esker, Pariseko Schola Cantorumera joan zen ikastera eta honako hauek izan zituen irakasle: Grovlez (pianoa), Decaux (organoa), Sérieyx (konposizioa) eta D'Indy (kontrapuntua eta fuga). Han, *Resurreccion Maria Azkue* eta *Jose Maria Usandizagarekin* egin zuen topo, eta lagun handiak egin ziren, besteak beste, helburu komun bat zutelako: euskal antzerki liriko handi bat sortzea. Parisetik Belgikara joan zen, Joseph Jongen organistarekin ikastera, eta gero, Koloniarara, non instrumentazioa ikasi baitzuen Otto Neitzelekin. 1909an, Bilbora itzuli eta Bilboko Koral Elkartearen ardura hartu zuen; koral horren zuzendaritza eta organista lana tartekatzen zituen. Urte horretan bertan, Así cantan los niños obra aurkeztu zuen; hiru agerraldi dira, haur abesbatzak pianoaren laguntzaz kantatzekoak. Geroago, orkestratu egin zuen eta bere obra nagusietako izan zen.

Koral Elkarteak euskal operak eta zarzuelak sustatzea erabaki zuen, aurreko ahaleginek ez baitzuten arrakastarik izan. Jose Power koraleko presidentearen aginduz, egileei sona handia eman zieten bi obra sortu ziren: Usandizagaren Mendi-Mendiyan eta Guridiren Mirentxu (1911). Mirentxu operatik oso gertu dagoen konposizioa da, eta egileak berak “*Euskal Idilio Lirikoa*” deitu zion. Bilbon estreinatu zen, eta Jesus Maria Arozamenak lagundu zuen testuak prestatzen. 1911tik aurrera, Bilboko Koral Elkartearen buru zela, Guridik izugarrizko lana egin zuen euskal musika korala zabaltzen, herri-musikan oinarritutako hainbat obra harmonizatuz; horien artean

aipagarrienak Cantos populares vascos (Erri-Abestiak) izeneko hiru sailak. Aldi berean, Amaya, euskal opera handia konposatzen jarraitu zuen, eta arrakasta handiz estreinatu zen 1920an; Francisco Navarro Villosladaren testua zuen eta libretoaren zatirik handiena euskaraz zen. Bi urte beranduago, Julia Ispizuarekin ezkondu zen eta sei seme-alaba izan zituzten: Maria Jesus, Luis Fernando, Maria Isabel, Ignazio, Julia (BGMEko gure lagun eta kidea) eta Jabier.

Konposizioaz gain, irakaskuntza eta organista-lana tartekatu zituen. Hasieran, Santos Juanes elizako organista titularra izan zen, eta gero, Santiago Katedralekoa; Nicolas Ledesma birraitona eta Luis Bidaola aitona ere eliza horretako organistak izan ziren.

Euskal folkloreakin eta giro kostunbristako irudiekin liluratuta, El Caserío estreinatu zuen 1926an, Federico Romero eta Guillermo Fdez. Shaw-en laguntzaz. Hortik aurrera, zarzuelak konposatzeari ekin zion buru-belarri. Baina obra sinfonikoak ez zituen alde batera utzi: Leyenda Vasca, En un barco fenicio, Sinfonía pirenaica, Homenaje a Walt Disney, eta bere orkestranetan ezagunena, Diez Melodías Vascas (Hamar Euskal Melodia).

El Caserío Madrilen estreinatu ondoren, 1944an, organo katedra irabazi zuen Madrileko Errege Kontserbatorioan; horri lotuta egon zen hil arte, eta 1956an bertako Zuzendari izendatu zuten. Real Academia de Bellas Artes de San Fernando delakoaren kide eta Egile eta Editoreen Elkarteko zuzendaritzako kide ere izan zen. 1961eko apirilaren 7an, bat-batean hil zen Madrileko Sagasta kalean zuen etxean.


### Bere musika

Wagner-en eta nazionalismo erromantikoko musikarien eragin handia izan zuen; herrikantuen harmonizazio-egile bikaina izan zen, eta sarritan euskal folkloreakin sustraietatik hartzen zuen inspirazioa. Ikusi dugunez, Guridik genero-sorta zabala landu zuen, funts handiz landu ere: ahots eta orkestrarako konposizioak, organorako pieza erlijiosoak, operak eta zarzuelak. Ahots-musikari dagokionez, aipatzekoak dira Seis canciones castellanas. Ganbera musika ere konposatu zuen, eta bi maisulan utzi zizkigun: Cuartetos para Cuerdas (Harizko Laukotearentzako bi pieza). Bi musika-pieza horiek sona handia eman zioten konpositoreari; izan ere, bigarrenak, Cuarteto en La izenekoak (Laukotea La-n), Espainiako Musikaren Sari Nazionala irabazi zuen eta Diskoaren Saria Parisen. Organista gisa ere zenbait ekarpen egin zituen: Tríptico del Buen Pastor, las Variaciones sobre un tema vasco eta Escuela española de órgano (Artzain Onaren Triptikoa, euskal motibo baten gaineko Bariazioak eta Espainiako organo eskola). Aipagarria da, bestalde, pianorako egin zuen obra (Danzas viejas, Ocho apuntes, Lamento e imprecación de Agar, eta abar).

Horiez gain, aipatu beharrekoak dira beste hauek ere: Aventura de Don Quijote (On Kixoteren abentura) poema sinfonikoa, 1915ean Madrileko Círculo de Bellas Artesen Saria jaso zuena; Cuadros vascos (Euskal Irudiak), bere obra sinfoniko-koralen artean formatu handienetakoa duena; Viejo Zortziko (Zortziko Zaharra), arparako obra dotorea; Elegía (biolin eta pianorako); Tirana, piano eta flautarako; Mandolinata (1934), italiar Errenazimentuko kantuen bilduma; Un sombrero de paja de Italia (Italiako lastozko kapela); Mari Eli (1936); La bengala (1939); Déjame soñar (Utzidazu amets egiten) sainetea (1943); eta La condesa de la aguja y el dedal (Jostorratza eta titarea zituen kondesa) izeneko komedia (1950). Musika erlijiosoari dagokionez, nabarmendu beharrekoak dira 3 Meza; Requiem-a da bat (ahots baxuentzat), eta beste biak en Honor del Arcángel San Gabriel y a San Ignacio (San Gabriel Arkanjeluaren eta San Ignazioren ohoretan), biak ere organoa eta koruarentzat. Eta amaitzeko, Maisuaren alderdirik ezezagunena bada ere, esan behar da filmetako musika konposatu zuela: Marianela; Un Traje Blanco; La Gran Mentira eta Viva lo imposible.

Egilea: Carlos Vivián Gómez

## BILBOKO GANBARA MUSIKA ELKARTEAREN HISTORIA



Gure elkarteak 1977an eman zituen bere lehen urratsak, Bilboko musika eta kantuaren zale batzuek beren ametsa gauzatzea erabaki zutenean. Horrela, ahots-talde bat osatu zuten, *Bilboko Ganbera Korua*, eta 1977ko apirilaren 1ean egin zuten lehen emanaldia, Laudioko (Araba) Lanuzako San Pedro Elizan.

Lehenengo koru hau izan zen geroago sortuko zen Bilboko Ganbera Musika Elkartearen (BGME) hazia, 1978ko urtarrilaren 13an, legez eratuta gelditu zena elkarte gisa.

BGMEren sorrerak asmo handiak zituen; garai hartan Bilboko musika-giroan zegoen hutsunea bete nahi zuen eta helburu zehatzak lortu: *“Musika sustatzea eta zabaltzea abesbatzen emanaldien bidez (...) horretarako, lehenengo helburua Ganbera Korua sortzea izango da, eta “BILBOKO GANBERA KORUA” izendatuko da; horrekin batera, ganbera orkestra sortu nahi da (...) eta antzinako musika entzunaldiak antolatu (...)”*<sup>1</sup>

Urtebete geroago sortu zen bere kidea: *Bilboko Ganbera Orkestra*, eta 1979an eskaini zuen bere lehenengo emanaldia. Harrezkero, aurrerantzean *Bilboko Ganbera Koru eta Orkestra* izenaz ezagutuko den talde horrek bide musikal luze bati ekin zion, nekez eta lanez bete, baina merezitako arrakastaz burutua. Ganbera Korua eta Orkestra uztartze horrek nortasun eta ezaugarri berezia eman dio talde honi, ez baitago horrelako konbinaketa askorik Bilboko paisaia musikalean, ezta Bizkaikoan ere.

---

<sup>1</sup> BGMEren 1. Erregistro-idazpenetik hartutako datuak. EAEko Elkarten Erregistroa.

Hasierako pausoak, oraingoak bezala, ez ziren batere errazak izan BGMErentzat. Elkartearen 10. urteurrenaren harira atera zen 1977-1987ko Memorian gogoratzen denez, elkarte honek "maila handiko" Korua eta Orkestra zituen, baina "baliabide urriak". Taldekide guztien lanaz eta adorea oztopo guztiei aurre egin eta kritika nahiz publikoa bereganatu zuten, eta horrela igo ziren Bilboko "Musikaren Olinpo" txikira.

## **GURE MUSIKA**

BGMEren 34 urteko bizialdi honetan (35 urte liburu hau idazten ari garen honetan) ehunka kontzertu eman ditu Bilbon, Bizkaian ere alderik alde ibili da, eta Espainiako eta atzerriko hainbat hiritara ere joan da<sup>2</sup>. Kalitatezko errepertorioa dauka, landua eta dotorea, baina aldi berean, malgua eta berritzailea. Garai artistiko bakoitzak garaiko zuzendariaren edo talde-osaeraren ezaugarriak ditu, baina betiere errepertorio bikaina du, eta entzuteko oso atsegina<sup>3</sup>. Kantu gregoriotik hasi eta musika folklorikoraino, hainbat estilo eta garai sartzen dira errepertorio oparo horretan: Errenazimentukoa, barrokoa, erromantikoa, klasikoa... musika erlijiosoa eta profanoa, euskal musika nahiz kanpokoak, a capella, orkestra-musika... batzuetan Alain Sancho Francés maisuak, koruaren zuzendarietako batek, Bilboko Ganbera Koru eta Orkestrarentzat berriaz konposatua.

BGMEk ez du inoiz hutsik ematen; izan ere, interpretatu behar duen taldearen baliabide eta ezaugarrietara egokitzen ditu partiturak, egindakoa berrikusiz, iraganetik ikasiz edo eboluzionatuz, eta etorkizuna arakatuz.

Ohiko kontzertu formalez gain, BGMEk haur eta gazteentzako Kontzertu Didaktikoak ere eskaini ditu, musika-gaiei buruzko hitzaldiak eman, eta dantza, musika eta poesia ikuskizunetan hartu du parte.

## **GURE ZUZENDARIAK**

Jose Ramon Rementeria izan zen lehenengo zuzendaria, eta aldi berean, Elkartearen eta Koruaren sortzaileetako bat. Zuzendari artistiko eta musikala izan zen 1977tik 2006ra arte. Bere arrastoa utzi zuen elkartean, eta maila musikal handia eman zion bere estilo zorrotz eta fidagarria ezarriz. Haren zuzendaritzapean musika gregoriano eta polifoniko ugari aurkeztu zen, aditua baitzen arlo horretan.

Alain Sancho Francés: Orkestra zuzendari tituluduna, saxofonista eta konpositorea zen eta taldearen zuzendaritzan egon zen 2006tik 2009ra arte. Goi-mailari eusteko erronka hartu zuen bere gain, eta bere estiloa ezarri zuen, teknikaz eta maisutasunez. Munduko musiken osagai folklorikoa erantsi zion errepertorioari; besteak beste, F. Gorritiren Meza G-n moldatu eta estreinatu zuen.

Txaber Fernández Martín: 2009ko apiriletik dago zuzendari. Orkestra Zuzendaritzako ikasketak amaitzen ari da eta biolinista da. Berak egin ditu Jesus Guridiren obraren Ganbera Koru eta Orkestrarako azken moldaketak, eta 2010etik ari dira interpretatzen, 2011ko Omenaldiari begira.

---

<sup>2</sup> Informazio gehiago aurkituko duzu **I. Eranskinean**.

<sup>3</sup> Informazio gehiago aurkituko duzu **II. Eranskinean**

## GURE MUSIKA ELKARTEA

Elkartekide asko izan dira musikaren zerbitzuan eta interpretazioaren gozamenean jardun dutenak. Esker oneko ehunka bihotz, entzuleen txalo-zaparrada beroaz hunkitu direnak.

Interprete handiak eman ditu gure elkarteak; esate baterako, Asier Polo, bi urte luzez jo zuena gure orkestran. Edo Vanessa Goikoetxea bezalako sopranoak, hainbat kontzertutan Ganbera Koruko solista izan genuena; edo Esther Urquijo, Maribel Per, Javier Artaza pianista, Fernando Latorre baritonoa, José Manuel Vázquez baxua, Seco biolinista... baten batzuk aipatzearren.

1995eko<sup>4</sup> Bilbao aldizkariako artikuluan batean, musika elkarte honek egiten duen prestakuntza lana aipatzen du Jaime Pinedok; "*jarduera profesionalera jauzi egiteko tranpolina*" dio berak, eta Asier Polo aipatzen du zehazki, gure Orkestran solista ibili zena, Bilboko Kontserbatorioan erdi mailako ikasketak egiten ari zela.

Gaur egun Koruak maila handiko ahots solista iraunkorrek ditu; esaterako, María Montes sopranoa, kantu lirikoko irakaslea; Elena Roldán mezzosopranoa, Arantza López sopranoa, Javier Vallejo tenorra, Iker Freire tenorra eta abar. Orkestrako solistei dagokienez, Estibaliz Ruiz Oiz concertinoa daukagu.

Historia labur honetan ezin ditugu aipatu gaztetan gure elkartean egon diren musikari guztien lanak, ez baita hori gure asmoa. Baina ez ditugu alde batera utzi nahi unean uneko ardua eta erantzukizuna bere gain hartu duten instrumentista eta koruko kantari "arrunt" horiek guztiak ere.

Musika elkarte honela dago osatuta gaur egun: alde batetik, Korua, Sopranoen, Kontraltoen, Tenorren eta Baxuen ahotsekin, 16 pertsona guztira, eta beste hainbeste Orkestran, honako instrumentu hauekin: biolinak, biolak, biolontxeloak, kontrabaxua, flauta/piccoloa, zeharkako flauta, oboea eta klarinetea; denak Txaber Fernández Martín<sup>5</sup> Koru eta Orkestra zuzendariaren agindupean.

Txus Diharce-ren<sup>6</sup> *El txoko de la Música* liburuan, BGMEri buruzko azalpenak eman ondoren, eta zuzendariari buruzko ohar biografikoak egin eta erreperitorioa aztertu eta gero, egileak, beste argazki batzuen artean, kide guztien izen-abizenak dituen bat sartu du, kasu honetan Koruak une horretan zuen osarearekin. Eskertzekoa da, benetan. Horrela, behintzat, elkartekideen erdiak ezagutzeko aukera daukagu.

Koruko eta Orkestrako kide batzuek ospea lortu dute; beste batzuek, musikaz gozatu dute, besterik gabe. Ez da nolana hiko poza. Gure esker ona erakutsi nahi diegu hasiera-hasieratik daudenei, eta 34 urte igaro ondoren, oraindik ere jarraitzen dutenei; hori da, esaterako, Julia Guridiren kasua, gure lagun eta elkartekide maitea, liburu honen bidez omendu nahi dugun Jesus Guridi musikariaren alaba. Eta gure aitortzea egin nahi diegu egon ziren baina orain ez dauden guztiei ere, hemen gurekin egon ez arren, gure oroimenean akordu samurra utzi duten guztiei...

---

<sup>4</sup> Pinedo Goiria, Jaime. *El Coro y Orquesta de Cámara forjan a jóvenes promesas. Asociación de Música de Cámara de Bilbao*. Bilbo, 85. zk., 1995eko uztaila. 32. orr.

<sup>5</sup> Informazio oso kontsulta daiteke gure web gunean: [www.amcb.es](http://www.amcb.es)

<sup>6</sup> Txus Diharce. *El Txoko de la Música. Musikoan Txokoa*. Bilbo: Publiescaparate, 2000

Ezin ditugu ahaztu Elkartearen baitan lanean ari direnak ere, hau da, Zuzendaritza Batzordea eta kanpoko laguntzaileak. Lehenengo batzordea eratu zenetik gaur arte 34 urte joan dira, eta batzorde horietan hainbat pertsonak egin dute lan, askok isilean eta izenik gabe, baina horiek guztiek ere BGMEri zutik irauten lagundu diote<sup>7</sup>.

Gaur egun Elkartearen bide berriak zabaltzen ari da Jose Maria Herrero Burgoaren zuzendaritzapean; foroak aztertzen eta formula berriak bilatzen ari da, erakundea kudeatzeko moduari aire gaurkotua eman nahirik; presentzia musikala eta soziala du betiko komunikabideetan, baina Interneten ere bai (BGMEren Web orria, Facebook, Youtube).

Amaitzeko, gure eskerrik beroena bazkide guztiei, gure entzule eta laguntzaile guztiei; horiek dira aurrera jarraitzeko daukagun arrazoia eta horiei eskaintzen dizkiegu gure kontzertuak.

Egilea: Belén Castelló Zamora

---

<sup>7</sup> Zuzendaritza Batzordeari buruzko datu gehiago gure web gunean: [www.amcb.es](http://www.amcb.es)



## **I. ERANSKINA** Non izan garen

Hauek dira kontzertuak eman ditugun auditorio eta antzoki garrantzitsuenak:

**Bilbo:** Campos Elíseos Antzokia, Coliseo Albia Antzokia, Begoñako Andra Mari Basilika, Ayala Antzokia, Arriaga Antzokia, "Guggenheim" Arte Modernoaren Museoko Auditorioa, Euskalduna Jauregia, Santiagoko Katedrala, BilbaoAlhóndigako Auditorioa.

**Donostia:** Artzain Onaren Katedrala

**Gasteiz:** Principal Antzokia

**Burgos:** Katedrala, Gran Teatro

**Errioxa:** Santo Domingo de la Calzadako (Ozkabarte) Katedrala

**Huesca:** Barbastroko Argensola Antzokia

**Madril:** Teatro Real

**Sevilla:** Osunako Kolegiata

**Cádiz:** Santo Domingoko Komentu Eliza

**Roma:** Frascati Jauregia

## II. ERANSKINA EGUNGO ERREPERTORIOA

<b>Musika-lana</b>	<b>Egilea</b>	<b>Interpretazioa</b>
<b>Adeste Fideles</b>	<b>Otaño</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Aita Gurea</b>	<b>F. Madina</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Alabatua (De Ronda, X Melodías Vascas)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Aldapeko</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza</b>
<b>Amorosa (X Melodías Vascas)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Andantino Religioso</b>	<b>F. Gorriti</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Aritz Adarrean (Amorosa, X Melodías Vascas)</b>	<b>J. Guridi, Ork.Txabern Fernandez Martin</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Ave María</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Bakarlaría eta Orkestra</b>
<b>Ave María (Cavalleria Rusticana)</b>	<b>P. Mascagni</b>	<b>Bakarlaría, Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Ave verum</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Because</b>	<b>The Beatles</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Boga, boga</b>	<b>J. Guridi (Herrikoia)</b>	<b>Abesbatza</b>
<b>Bogoroditse Devo</b>	<b>S. Rachmaninov</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Cantata 147</b>	<b>J.S. Bach</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Canticorum Iubilo</b>	<b>G.F. Händel</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Cantique de Noël</b>	<b>A.C. Adam</b>	<b>Bakarlaría, Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>¿Con qué la lavaré?</b>	<b>J. Rodrigo</b>	<b>Bakarlaría eta Orkestra</b>
<b>Dravidian Dithyramb</b>	<b>Victor Paranjoti</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>El Caserío (Zatiak)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Eleanor Rigby</b>	<b>The Beatles</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Exsultate Iubilare (Aleluia)</b>	<b>W.A. Mozart</b>	<b>Bakarlaría eta Orkestra</b>
<b>Gaizuma Luzerik (Religiosa, X Melodías Vascas)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Gloria (Samba Brasildarra)</b>	<b>Vicente Bianchi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Goizeko Izarra</b>	<b>Herrikoia. Egok. Alain Sancho</b>	<b>Abesbatza eta</b>

		<b>Orkestra</b>
<b>Hator, hator (Euzko Irudiak)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Haurtxoa Seaskan</b>	<b>G. Ollazola, Egok. Alain Sancho</b>	<b>Bakarlarria eta Orkestra</b>
<b>La muerte de Ase (Peer Gynt)</b>	<b>Edvarg Grieg</b>	<b>Orkestra</b>
<b>Jentilari Un (Epitalámica, X Melodías Vascas)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Jingle Bells</b>	<b>J. Pierpont</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Maitia nun zira</b>	<b>Herrikoia</b>	<b>Abesbatza</b>
<b>Meza G-n</b>	<b>F. Gorriti</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Misa en honor del Arcángel San Gabriel</b>	<b>J. Guridi Ork. José M<sup>a</sup> Olaizola</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Muérdago</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Orkestra</b>
<b>Nga Iwi E</b>	<b>Maoriko herrikoia</b>	<b>Abesbatza</b>
<b>Noche de Paz</b>	<b>F. Gruber/S. Ford</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>O Tannenbaum</b>	<b>Alemaniko herrikoia</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Oh, had Jubal's Lyre</b>	<b>G.F. Haendel</b>	<b>Bakarlarria eta Orkestra</b>
<b>Oñazez (Nik Baditut)</b>	<b>J. Guridi (Testu herrikoia)</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Sant Urbanen Bezpera (Narrativa, X Melodías Vascas)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Scarborough Fair</b>	<b>Zeltar herrikoia. Egok. Carsten Gerlitz</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Sing a Song of Six pence</b>	<b>Ingalaterrako herrikoia</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Stabat Mater</b>	<b>G.B. Pergolesi</b>	<b>Bakarlarria eta Orkestra</b>
<b>Summer time (Porgy and Bess)</b>	<b>G. Gershwin</b>	<b>Bakarlarria eta Orkestra</b>
<b>Swing Low, Sweet Chariot Espiritual negro</b>	<b>Egok. C. Ap Aeron Jones</b>	<b>Bakarlarria eta Orkestra</b>
<b>Tantum Ergo</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>The First Novel</b>	<b>Ingalaterrako herrikoia</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Tollite Hostias</b>	<b>C. Saint-Saens</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Txeru</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza</b>
<b>Villancico</b>	<b>J. Silguero (Herrikoia)</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>

## Errepertorio Orokorra

---

<b>Musika-lana</b>	<b>Egilea</b>	<b>Interpretazioa</b>
Adeste Fideles	Otaño	Abesbatza eta Orkestra
Adeste Fideles	J.F. Wade	Abesbatza eta Orkestra
Aita Gurea	F. Madina	Abesbatza eta Orkestra
Alabatua (X Melodías Vascas)	J. Guridi	Abesbatza eta Orkestra
Aldapeko	J. Guridi	Abesbatza
Amorosa (X Melodías Vascas)	J. Guridi	Abesbatza eta Orkestra
Andantino Religioso	F. Gorriti	Abesbatza eta Orkestra
Aritz Adarrean (X Melodías Vascas)	J. Guridi	Abesbatza eta Orkestra
Arno hun hun huntarik	J. Guridi (Testu herrikoia)	Abesbatza eta Orkestra
Atardecer	V. Zubiaurre	Abesbatza eta Orkestra
Ave María	J. Guridi	Bakarlaria eta Orkestra
Ave María	Usandizaga	Abesbatza eta Orkestra
Ave María (Cavalleria Rusticana)	P. Mascagni	Bakarlaria, Abesbatza eta Orkestra
Ave verum	J. Guridi	Abesbatza eta Orkestra
Because	The Beatles	Abesbatza eta Orkestra
Belenem sortuzaigaJinkoa	J.A. Donostia	Abesbatza eta Orkestra
Boga, boga	J. Guridi (Herrikoia)	Abesbatza
Bogoroditse Devo	S. Rachmaninov	Abesbatza eta Orkestra
Cantata 147	J.S. Bach	Abesbatza eta Orkestra
Canticorum Iubilo	G.F. Händel	Abesbatza eta Orkestra
Cantique de Noël	A.C. Adam	Bakarlaria, Abesbatza eta Orkestra
¿Con qué la lavaré?	J. Rodrigo	Bakarlaria eta Orkestra
Cooney's Reel	Ingalaterra	Abesbatza eta Orkestra
Coventry Carol	Ingalaterra	Abesbatza eta Orkestra
Dedziet Skalu Putiet Guni	S. Mence (Letonia)	Abesbatza eta Orkestra
Dos Melodías Elegiacas	E. Grieg	Abesbatza eta Orkestra
Dravidian Dithyramb	Victor Paranjoti	Abesbatza eta Orkestra
El Caserío (Selección)	J. Guridi	Abesbatza eta Orkestra
Eguberri gaua	J. Guridi (Iparraldekoa)	Abesbatza eta Orkestra
Eleanor Rigby	The Beatles	Abesbatza eta Orkestra
Erregeak datoz	J. Guridi (Donostiako Gabon kanta)	Abesbatza eta Orkestra
Euskaldunak	J.A. Donostia	Abesbatza eta Orkestra
Ev'ry Valley Shall Be Exalted Mesias	G.F. Haendel	Bakarlaria eta Orkestra
Exaudi Domine	W.H. Veit	Abesbatza eta Orkestra
Exsultate Iubilate (Aleluia)	W.A. Mozart	Bakarlaria eta Orkestra
Gabon (Oi Bethlehem!)	J.A. Donostia	Abesbatza eta Orkestra

<b>Gaizuma Luzerik (X Melodías Vascas)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Gloria (Samba Brasileña)</b>	<b>Vicente Bianchi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Goizeko Izarra</b>	<b>Tradicional Vasca. Egok. Alain Sancho</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Hator, hator (Eusko Irudiak)</b>	<b>J. Guridi (Herrikoia)</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Haurtxoa Seaskan</b>	<b>G. Oliazola, Egok. Alain Sancho</b>	<b>Bakarlaria eta Orkestra</b>
<b>Intellige Clamorem Meam</b>	<b>C.L. Drobisch</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Intermerzzo, Cavallería Rusticana</b>	<b>P. Mascagni</b>	<b>Orkestra</b>
<b>Itxasoa</b>	<b>Herrikoia</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Izar baten truke</b>	<b>Alain Sancho Francés</b>	<b>Saxofoia eta Orkestra</b>
<b>Jentileri Un (Epitalámica, X Melodías Vascas)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Jesu Decus Angelicum</b>	<b>V. Zubiaurre</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Jingle Bells</b>	<b>J. Pierpont</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>La Pasión según San Lucas</b>	<b>J.S. Bach</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>La Resurrección de Lázaro</b>	<b>J.C.F. Bach</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>La Muerte de Ase (Peer Gynt)</b>	<b>Edvard Grieg</b>	<b>Orkestra</b>
<b>Lauda Sion</b>	<b>N. Ledesma</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Les anges dans nos campagnes</b>	<b>Frantzia</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Mairi's Wedding</b>	<b>Eskozia</b>	<b>Gaita eskoziarra</b>
<b>Maite</b>	<b>P. Sorozabal</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Maitia nun zira</b>	<b>Herrikoia</b>	<b>Abesbatza</b>
<b>Matsaren orpotik</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Misa en G</b>	<b>F. Gorriti</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Misa en honor del Arcángel San Gabriel</b>	<b>J. Guridi. Ork. José M<sup>a</sup> Olaizola</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Muérdago</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Orkestra</b>
<b>Nerea izango zen</b>	<b>M. Laboa</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Neure maitia</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Nga Iwi E</b>	<b>Maoria</b>	<b>Abesbatza</b>
<b>Noche de Paz</b>	<b>F. Gruber/S. Ford</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Nundik ator, astoa?</b>	<b>J. Guridi (Testu herrikoia)</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>O Cuan Suavis</b>	<b>V. Zubiaurre</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>O Sacrum Convivium</b>	<b>V. Zubiaurre</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>O Salutaris Hostia</b>	<b>V. Zubiaurre</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>O Tannenbaum</b>	<b>Alemania</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Oh, had Jubal's Lyre</b>	<b>G.F. Haendel</b>	<b>Bakarlaria eta Orkestra</b>
<b>Obella Mia Speranza</b>	<b>L. Perosi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Oñabez (Nik Baditut)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Pobrecito Corazón</b>	<b>Klonbia</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Sant Urbanen Bezpera (X Melodías Vascas)</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>

<b>Scarborough Fair</b>	<b>Zeltiar herrikoia. Ekok. Carsten Gerlitz</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Sing a Song of Six pence</b>	<b>Ingalaterra</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Stabat Mater</b>	<b>V. Zubiaurre</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Stabat Mater</b>	<b>G.B. Pergolesi</b>	<b>Bakarlaría eta Orkestra</b>
<b>Star of the County Down</b>	<b>Ingalaterra</b>	<b>Whistle eta orkestra</b>
<b>Summer time(Porgy and Bess)</b>	<b>G. Gershwin</b>	<b>Bakarlaría eta Orkestra</b>
<b>Swing Low, Sweet Chariot Espiritual negro</b>	<b>Ekok.. C. Ap Aeron Jones</b>	<b>Bakarlaría eta Orkestra</b>
<b>Tantum Ergo</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>The First Novel</b>	<b>Tradicional Inglesa</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Tollite Hostias</b>	<b>C. Saint-Saens</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Txeru</b>	<b>J. Guridi</b>	<b>Abesbatza</b>
<b>Villancico</b>	<b>J. Silguero (Herrikoia)</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>Vistas al Mar</b>	<b>E. Toldrá</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>
<b>We Wish You A Merry Christmas</b>	<b>Ingalaterra</b>	<b>Abesbatza eta Orkestra</b>